

NAFARROAKO FORUZAINGOAREN BIGARREN JARDUERAREN ERREGELAMENDUA	
Tramitea:	ARAUAK IDATZI AURREKO KONTSULTAK
Bitartekoa:	GOBERNU IREKIAREN ATARIAN ARGITARATZEA
Araua:	39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, arauak prestatzeko prozeduran herritarren parte-hartzea hobetzeko, erregelamendu proiektu bat egin aurretik kontsulta publiko bat bideratu beharko da administrazio eskudunaren web atariaren bidez, jakiteko zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkartzarik handiena duten erakundeek. Txostenean gai hauek jasoko dira:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi asmo diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Aurrekoa betez, hala nahi duten herritarrek, erakundeek eta elkarteek 2019ko otsailaren 19 (e)ra arte galde-sorta honetan planteatutako alderdien gaineko iritziak igor ditzakete helbide elektronikoko honetara: serejupe@navarra.es.

1. KONPONDU ASMO DIREN ARAZOAK

- Langileen gaitasun psikofisiko egokia bermatzea, Nafarroan jardunean dauden polizien zerbitzuaren eraginkortasuna eta segurtasuna ziurtatuz.
- Karrera profesionala egokitzea denboraren iraganak Nafarroan jardunean dauden polizien egoera fisiko edo psikikoan eragiten dituen aldaketetara.

2. ARAUA ONESTEA BEHARREZKOA ETA EGOKIA DEN

- Nafarroako Poliziak arautzen dituen araudi esparru berrira egokitzea (esparru hori Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Legeak onetsi zuen), bigarren jardueraren egoera administratiboan.

3. ARAUAREN HELBURUAK

- Bigarren jardueraren egoerara pasatzeko adina ezartzea.
- Zerbitzuak emateko inguruabarrak eta baldintzak arautzea, bigarren jardueraren egoera administratiboan.
- Bigarren jarduerari dagokion egoerara pasatzeko desgaitasun medikoen gradua zehaztea.
- Bigarren jardueraren egoerara pasatzeko prozedura ezartzea.

4. AUKERAN DAUDEN BESTE KONPONBIDE BATZUK

Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legean xedatutakoaren arabera, lortu asmo diren helburuak soilik arau bidez gauzatzen ahalko dira. Beraz, ez dira bidezkoak arautzen ez duen konponbidea edo bestelako formulen bidezko arautzea.